

Uztaro 71, **hitzaurrea**

Jokin Apalategi,
Uztaro giza eta gizarte-zientzien aldizkariaren zuzendaria

Euskal Herriko gizarte-egituraren azpisareetan itsatsirik, beti adi bizi den UEUK, beste behin ere, bere bizkortasuna eta ausardia nabarmenduz —enfrentamenduaren goriagatik aboradatzea bera ere ezinezkoa zirudien gai batean— eta gogoeta eta eztabaida kudeatzeko beste eragile unibertsitarioek ez bezalako abilezia daukala erakutsiz, **Nafarroako erlijio tokiak, norenak?** galderari liskartutako bi aldeetako ordezkariak dokumentazio arrazoituz erantzun ziezaioten lortu zuen 2009ko martxoaren 26an, Nabarrerria kaleko Civivoxen.

Moderatzaile lanetan Izaskun de Miguel Barco UEUKo Zuzenbide sailburua zutela, batetik, Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformako kide den José Maria Esparza, «Nafarroako ondarea herriarena» eskaria defendatuz, eta bestetik, Iruñeko Artzapezpikutzako edo Elizako bi ordezkari, Iñaxio Azkoaga, Euskal Pastoraltzaren Saileko eta NUPeko irakaslea, eta Miguel Larranbeberere, ISCR «San Francisco Javier»eko eta CSET «San Miguel Arcángel»eko irakaslea, «Kristau-herria, bere elizen jabe» eskaria sostengatuz, euren argudioak publikoaren aitzinean azaltzeko bildu ziren. Horiekin batera, formalki eta publikoki aurrez aurre jarritako bi aldeetatik at egon zitekeen beste dokumentazio eta aburu arrazoiturik agertzea komeniko zela-eta, UEUKidea izanik, EHUn Zuzenbide Zibileko irakaslea den Mikel Karrera Egialde, «Jabetza Erregistroan finkak immatrikulatzeko moduak» gaiaz, eta UEUKidea izanik, NUPen Zuzenbidearen Historiako irakasle den Roldán Jimeno Aranguren, «Nafarroako erlijio-eraikinen jabetza: ikuspegi historiko-juridiko bat» gaiaz, hitzaldi bana ematera gonbidatuak izan ziren.

Ondotik, jardunaldiaren kudeatzaileak, gogoetan parte hartu zutenek ekarritakoen emaitzak besteontzat ere jakingarriak izan zitezkeela pentsaturik, *Uztaro* aldizkarira ate joka ailegatu ziren argitaratzeko aukerarik izango zen jakitera. Erredakzio Kontseiluak bildurik, laster, aho batez onartu zuen zenbaki berezi bat kaleratzea merezi zuela gaiak. Irakurleak esku artean daukana, bada, 2009ko martxoaren 26an jardunaldietako parte-hartzaileek esandakoekin, ukitu batzuen gorabeheran, noski, eta gero gehigarri moduan *ad hoc* Edorta Kortadik eta Luzio Uriartek idatzi dituzten lanekin osatuta dator. Bidenabar, parte hartu duten guztiei gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu *Uztaro* aldizkaritik. Eta besterik gabe, pasa gaitezen lan horiek aipatzera.

J.M. Esparza Zabalegik, argitalpenerako prestatu duen idatzia, hots, «Norena da herriaren ondarea?», irakurlea jabetuko denez, jardunaldian ez bezalako izenburuarekin plazaratzen da. Eta ematen duen ihardespenean aldaketa hori esplika dezakeen arrazoia atzematen dugu: erlijio-tokiak baino harago doan erregistrokanpaina egiten ari dela Nafarroako Eliza Katolikoa salatzen baitu. Baina adieraziko zaigun bezala, herriaren ondarea bada hori guztia, non egon dira udalak, besteak beste, galde daiteke. Eta horrentzako ere ihardespenik ez bada: «Udalek ez zuten hori guztia erregistrora eramaten horren beharrik ikusten ez zutelako. Zertarako? Herriarena zen eta kito. Orain garbi dago udalak eta kontseiluak adi egon behar direla ondasun haiek ken ez diezazkieten».

Prozedurari dagokionez, egin dena arras erraza dela agertzen zaigu. Ehunka eliza, egun berdinetan eta *Artículo 206 de la Ley Hipotecaria* delakoa erabili, alegia, immatrikulatuta gelditu daitezke. «Egun batean, Erregistroan aurkezten da *diócesis* edo elizbarrutiko arduradun bat ondare-zerrenda batekin, esanez beraien zertifikazioaren arabera, Elizarenak direla. Ez dute eramaten, ez eskriturarik, ez notarioaren ziurtagiririk, ezta herriko udalaren idazkariaren informarik ere... Beraien zertifikazioa bakar-bakarrik. Hogeit hamar euro ordaindu ondasun bakoitzarengatik, eta ondare horiek immatrikulatzen dira (“modu pribilegiatu batez”, guri erregistratzaileak berak aitortu zigun bezala)». Hori horrela gertatzen ari dela frogatuz gero, berriro galdera pausatu eta erantzuten da: «Ondare horiek norenak dira? Erregistroarako bidea lasterka gehien egiten duen korrikalariena? Ez al da serioagoa, immatrikulatze-prozesu honetan balizko interesa duten guztiak kontuan hartzea? Elizak izanen ditu bere eskubideak, baina udalek ere, baita kontseiluek eta auzokideek ere... Nola da posible batek immatrikulatzea milaka ondasun besteak deus jakin gabe?». Eta gertatzen ari denaren erru-karga osoa legearen existentzian jartzen da: «Eta disparate juridiko horrek eskandalu honetara ekarri gaitu». Ondorioz, «Hipoteka Legearen 206. artikulua abolizioa premiazko behar urgentea da, higiene demokratikoarengatik», adierazten zaigu.

Artikulugilea, gizarte-eragilea ere denez, agertzen digu nola Altaffaylla Kultur Taldeak deitu zuen Nafarroako gizartea. «Jende eta erakunde ugari bildu ziren eta hortik sortu zen Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma. Eta hara non gure sorpresa; izan ere, guregana etorri zen jende asko kristauak eta apaizak ziren! Eta lehenbiziko momentutik oso garbi utzi genuen, plataforma bezala antiklerikalismoaren ildoak ez genuela jorratuko, erlijioaren edo kristauen kontra ezer ez genuelako». Ekimenean buru-belarri sarturik, «Nafarroako Parlamentutik orain arte lorturiko emaitza bakarra, 1998tik hona 206. artikulua erekin eginiko immatrikulazioen zerrenda da». Baina ikustean zer ondasun mota immatrikulatu izan den Eliza Katolikoaren eraginez, apezpikuaren justifikazio-diskurtsoa, hots, «herriko elizak, elizarenak dira» hankaz gora erortzen da: «Nola esplikatuko, ordea, 1.087 immatrikulazio horietatik 236 elizak ez izatea? Etxebizitzak, lurrak, larreak... Nork bedeinkatu egin ditu ondasun horiek Elizarenak izateko?». Gainera, elizak ere Elizarenak direla ihardetsi egiten da: «Beharbada, zenbait kasutan egia izango da, baina beste kasu askotan, gehienetan esango genuke, herriarenak dira, beraien artxiboetan ongi frogatzen ahal delako. Erosketa guztiak, altzari guztiak, apaizen arropak, kalizak, gurutzeak... Hori guztia enkargatzen zuten udalek, eta

herriaren diruz edo auzolanez pagatzen zen. Apaizak, sakristauak, kanpaia-jotzailea eta almosneroak ere udalak berak kontratatzen eta pagatzen zituen moduan. Kasu gehienetan Elizak ez du pagatu adreilu bat ere».

Baina liskarraren ardura ez al da Nafarroako Elizan sortu den propietate-antsian jarri behar batez ere? Zergatik dago Nafarroako Eliza urduri? Eliza Katolikoak Hipoteka Legearen 206. artikuluan duen izaera pribilegiatua lehenbailehen aprobetxatu nahi balu bezala, ez ote da galtzeko arriskuren bat aurreikusten ari? Zer da izaera pribilegiatu hori? Aipaturiko lege horretan, Eliza Katolikoak, eta ez beste elizek, baduela Estatuko instituzio baten ezagutza eta ondorioz ondasun horiek immatrikulatzeko eskubidea, hain zuzen. Estatua eta Eliza bereizten joango diren neurrian «pribilegioak» ezabatzen joango dira. Baina ondare horiekin nola jokatu behar den galderari plataformak erantzun bat dakarkio: «Eliza gehienak, baselizak eta 206. artikuluekin immatrikulatu diren ondasun guztiak itzuli egin behar zaizkie herriei, herrienak direlako. Herriek eta Nafarroako Instituzioek sostengatu egin behar dituzte, Iparraldean egiten den bezala; irekita eta zabalik egon behar dira herritarrek errespetu osoz erabiltzeko, historikoki erabili izan diren moduan, eta kultu-lekuak kulturako erabili behar dira orain arte erabili diren gisan». Baina hau bera ez ote erantzun errazegia edo arinegia? Udalak, instituzioak oro har, prest al daude ondasun horietan mantenimendurako beharrezkoak diren inbertsio jarraituak egiteko konpromisoa hartzeko? Berdin-berdin, Elizari galdera bera egingo genioke, prest al dago jabe pribatu bezala ondasun horien jarraipena egiteko? Estatuaren eta Elizaren arteko gerra hori piztu den herrietan, batzuen eta besteen ardura ezagatik, hainbat ondasun galdu izan baitira.

Iñaxio Azkoaga eta Mikel Larrambebereren «“Kristau-elizak, kristau-herriarenak”: ikerketa zail baten oinarriak» artikulua, jardunaldietan erabilitako izenburutik arras hurbil gelditu da. Hasiera-hasieratik, irmoki, Elizaren instituzio-izaera azpimarratzera datoz artikulugileak. Zergatik ote da? Aurreko artikulua komentatzean adierazi dudanez, badirudi puntu hau dela gaurko Nafarroako Elizaren purrustada eragin duena: «Instituzio hau modu jakin batean antolatu zen [Eliza Katolikoaren hasieran], gobernu konkretu batekin, doktrina zehatz batekin, kultu berezi batekin eta pobreei laguntzeko baliabide konkretuak sortuz. Instituzio-izate horrek eta irauteko borondateak nahitaezkoa egiten dute ondasunak eduki behar izatea. Bere helburuak lortzeko Elizak sostengu materiala behar du izan: tenpluak, liburuak, jantzi liturgikoak, apaizen mantenua, eta abar». Gaur egun, Estatua eta Eliza urruntzen doazen moduan, une batez, «borondatezko elkarte soil» baten kontsiderazioan gelditzearen beldur dela Eliza Katolikoa adieraziko luke. Eta esan liteke ere, ondorioz, ondasunen akumulazioa egin nahi dela badaezpada ere. Baina, artikulugileen lana ondoagotik jarraituzera igarotzen bagara, hauxe aurkitzen dugu. Batetik, Elizaren lehen ondasunak garaian garaiko eta tokian tokiko agintariekin lortutako kolaborazioaren truke altxor publikotik etorri zirela gehienbat, baita kristau soilen donazioetatik ere, noski. Nahiz grina berezia agertu donazioen aldeko tesiarentzat. Bestetik, «Erdi Aroan, pixkanaka eta gorabehera askorekin, parrokia bihurtuko da kristau-unibertsoaren instituziorik dinamikoenetako bat», esaten zaigu. Baina, Erdi Aroaren bigarren zatian, bereziki, ez dezagun ahaztu kristau-erregeak **politikoki** Aita Santuaren menpeko zirela. Eliza Katolikoa zela Mendebaldeko European hierarkia politikoaren aginte-burua. Tributuek ordaindu eta

soldaduak eskaini behar zizkietela Eliza Katolikoari azken honek zuen inperio gerrariaren proiektuak bete zitzaizkion. Jarraitzen da historia egiten: «Erdi Arotik gure garaietara, gure herrietan jende berberak bi instituzioetako partaide izan ditugu: kontzejua batetik eta parrokia bestetik, gizarte zibileko partaide eta aldi berean gizarte espiritual edo eklesiastikokoak». Herritarrak kristauak izan diren bitartean, bai, noski. Baina kristauak Eliza desberdinetan zatitzen joan direnean eta, geroago, gizarte zibila kristautasunetik urruntzen joan den eran, ez dute bi instituzio horiek gehiago bat egiten. Patronatu instituzioa ere aipatzen digute: «Azken mendeetan zuzenbide kanonikoan jaso eta onartu den patronatu-eskubidea hauxe dugu: Elizak bere ongileei esker ona agertzeko izan duen modua. Tenplua eraikitzeko lur-sail bat ematen zuenari, eliza eraikitzen zuenari eta kultu-gastuetarako beharrezkoa zena “dotatzen” zuenari patronatu-eskubidea ematen zitzaion eliza horren gain bere eskubide eta obligazioekin». Hori zer den? Ikus Roldán Jimeno Juriok puntu hau argitzeko dakartzan datuak.

Eta gure egunetara hurbiltzen dira artikulugileak, esanez: «XIX. mendeko gerrateen ondorioz (frantzesaldia, karlistaldiak...) parrokiek asko sufritu zuten eta beren ondareak ere asko gutxitu ziren». Arrazoi nagusia ere zehazten da hainbatetan: «Estatu liberalak, zor handia zuenez gero, desamortizazio bat baino gehiago burutu zituen. Eliza kaltetuenetako bat izan zen. Desamortizaziorik aipagarrienak Mendizabalena eta Madozena izan ziren. Ordena erlijiosoei eta parrokiei ondasun pilo ikaragarria kendu egin zitzaizen saltzeko». Berrito ikus Roldán Jimeno Juriok dioena gaiaz. Nik neure aldetik gehitzen dut litekeena dela abusuak egon izana. Baina garrantziagokoa da Estatu laikoak ez duela gehiagorik Eliza Katolikoa Estatuaren instituzio bezala gorde nahi. Zergatik legoke horretara behartuta? Jendearen gero eta joera agnostikoagoek eta erlijioen aniztasunak Estatuaren instituzio neutral izatera behartzen dute. Nafarroako Eliza Katolikoan honek guztiak hutsaren itolarria eta arrangura piztu du, eta, ondorioz, 1861eko otsailaren 8ko Hipoteka Legeak sortu zuen Jabetza Erregistroa ondasun higiezinak inskribatzeko, eta 1863ko azaroaren 6ko Errege Dekretuak arautu zuena, salbazio-bidetzat hartu dituztela dirudi.

Mikel Karrera Egialdek «Jabetza Erregistroa eta Eliza Katolikoa» izenburupean eskaini du bere idatzia. Jardunaldietan zuen izenburuarekiko aldaketa batzuk izan dira beste behin ere. Artikulugileak egiten duen ekarpena aberatsa bezain zehatza da. Argitzeko eskatu zaion gaien teknikari jakintsuaren txostena da egin duena. «Landuko den alorra zehazteko, komeni da aldamenean dauden zenbait eremuri buruz iruzkin orokorrak laburtzea» esanez abiatzen da bere gogoeta. Dinamika, subjektua, objektua, objektuaren gaineko oinarritzko eskubidea, eta Elizaren barne-estatutuek ondarearen jabetza izaeraz eskubide naturala dela onartzen dutela adierazten dira banan-banan. Ondotik, Jabetza Erregistroaren aurrekariak aztertzen dira: «Gurean, aitzindaritzat jo daitezke, batetik, hainbat herritan zentsuak eta hipotekak apuntatzeko liburuak (*Libros de censos e hipotecas*) eta, gero, erregistro sistematizatuago bat osatzeko eratu ziren *Contaduría de Hipotecas* edo *Oficios de Hipotecas* direlakoak 1712-1861 urte tartean: udalen ardurapean daude eta ondasun higieziari buruzko erreferentziak (zentsuak, salmentak, hipotekak edo maiorazkoak) jasotzeko erabiltzen dira».

Helburuak aipatzera igaroaz hauxe adierazten da: «Jabetza Erregistroa, izaeraz, ondasun higiezinak biltzeko erregistro juridikoa da [...] Helburua, beraz, ondasunen gaineko eskubideei publikotasuna ematea da: publikotasuna, batetik, berri ematea da, egoera juridikoa ezagutarazten baitu; eta, bestetik, eraginak dira, ondorio juridikoak sortzen baititu».

Hurrengo gogoeta higiezinak immatrikulatzeko pausoez ari da. «Finka lehen aldiz jasotzen bada Jabetza Erregistroan, berari buruzko folio (edo fitxa) bat ireki eta immatrikulatu egiten da». Eta hemen azaltzen den gaiari dagokionez, «lehenengo pausoan *tenplu katoliko*en arazoa kokatzen da (zer immatrikulatu) eta, bigarrenean, *jabetza-ziurtagiriaren* nondik norakoak azaltzen dira (nola immatrikulatu)». Elizak bere ondasun guztiak inskribatzeko eskubidea du, baina hurrengo arazoa da horretarako zein bide erabili behar duen. Horren azalpenak hurrengo atalera eta arazo nagusira garamatza. «Tituluak inskribatzeko diozesi-buruak (apezpikuak) emandako ziurtagiria legearen arauan ez da sartzen; aldiz, lehen inskripzioa egiteko (finka immatrikulatzeko), hau da, finka Erregistroko bizitzara ekartzen duen idazpena —beraz, inskripziorik garrantzitsuena— egiteko haren ziurtagiriak baliozkoak dira 206. artikuluaen arabera (funtzionariotzat hartzen bada hura)». Are oraino esaten da: «Edukiaren aldetik, jabetza-eskubidea Elizak zergatik duen arrazoitu egin behar du diozesi-buruak eta, eraginen aldetik, ziurtagiria ez bada egiazkoa, adierazitako dokumentuak ez direlako existitzen, ziurtagiri hori, titulu gisa, deuseza izanen da».

Beraz, oraindaino emandako pausoetan, abiapuntu gisa jabetza-titulurik ez izatetik, jomuga da, azken finean, finka immatrikulatzea. Immatrikulatzeko bide berezi horrek, dena den, Jabetza Erregistroan ondasunari matrikula jarri eta folioa irekitzea besterik ez du ekartzen. Dokumentuan jasotako eskubide-itxura onartzen da eta horrek ez du esan nahi errealitate juridikoan hala denik. Hala ere, Jabetza Erregistroan immatrikulatu izanak garrantzi handia duela gerora azpimarratuko zaigu. «Finka Jabetza Erregistroan immatrikulatzea borondatezkoa bada ere, inskribatzea komeni da, are gehiago emandako bidea ondo erraza bada; azken batean, inskribatutako tituluak jasoko duen babesa eta eskubideak izango dituen abantailak lortzea da finka Jabetza Erregistroan inskribatzearen arrazoia».

Honi guztiari loturik hainbat kontsiderazio dago zenbait puntuz: aurkakotasunari; lehentasunari; legitimazio edo zuzentasunaren aldeko presuntzioari; erregistroko fede publikoari; eta fede onari buruz, alegia. Finean, immatrikulatzeko bide berezien muga zertan datzan erakusten da, esanez «erregistratzeak ez duela eragin eratzailerik eta eragin deklaratzailerik hutsa izango duela, alegia». Aurrerantzean, auzia irekitzen bada, ibilbide luzea duen gaiaren aitzinean gaude erakusten digu. «Ezein kasutan, arazoa konpontzeko, interesatuen arteko akordiorik ezean, epailearengana jo beharra sortuko da. Hain zuzen, gerta liteke egindako immatrikulazioa zuzena ez izatea». Artikulu mamitsua da, bada, behar gorri horretan aurkitzen direnak argitzeko. Ez dago lerro bat galtzekorik.

Roldán Jimeno Juriok «Nafarroako erlijio-erakinen jabetza: ikuspegi historiko-juridiko bat» artikuluan aurrez Jardunaldietan erabilitako izenburu bera errespetatu du. Nafarroako Artxiboetan mugitzen dakien historialari tekniko jakintsu baten lanaren aitzinean gaude. Hasiera-hasieratik garbi bereizten ditu patronatua eta

jabetza. Eta patronatuaren barnean azpibereizketak ere berehala egiten ditu «Berez, patronatu-zuzenbidean bi patronatu mota ezberdinu behar dira: eklesiastikoa eta laikala. Izaera horiek ezagutzeko ondasun motei erreparatu behar diegu: patronatu eklesiastikoa eliza-ondasunekin eraturikoa izango da, eta ondasunak patrimonialak direnean, laikala. Zentzu horretan, berdin dio fundatzailea elizgizona edo laikoa den. Patronatu mistoa ere existitzen da». Gaiaren sendoa bidea egiteko aholku bat ere ematen du: «Kasuz kasu aztertu beharko genuke baina, oro har, patronatuarekiko eztabaida esparru etiko batean koka dezakegula bakarrik ondoriozta dezakegu, patronoek patronatuaren jabetzarik ez dutelako». Erdi Arotik Elizaren antolamendu-konfigurazioan ezagunak diren kofradien, monasterioen eta komentuen, katedralen eta eliza parrokiaren tratamendua ere tipologia eginez aztertzea beharrezko gertatzen dela erakusten zaigu, aldaketa-garaietan ere horien zortea ez baita berdina izan. Adibide modura artikulugileak berak egindako ikerketa batzuk aipatzen ditu. Eta ondorio orokor modura, beste behin ere hau dio: «Edozein kasutan, eraikin bakoitzak bere historia berezia izan du, eta horri erreparatu beharko zaio lehenik eta behin». Gure egunetara hurbilduaz, XIX. mendeko Estatu liberalaren desamortizazioak aipatzen dizkigu: «Dena den, liberalek ez zuten nahi herria, kleroa eta abar haien kontra jartzetik. Hori ekiditeko, Elizari bere ondasunak eta hamarreneko errentak kentzearen truk, Estatuak Eliza Katolikoaren kultu- eta klero-gastuak sarreraren pentzudan ordaindu behar zituen. Bestalde, 1837ko uztailaren 29ko Legearen desamortizazio-neurriak ez ziren bat-batean indarrean ezarri». Gainera, jokabide hori Estatuak eta Elizak harremanen bidez ibilbidean gelditu eta itzuli egingo dute. Hasteko martxan zegoena geldituz: «1843an moderatuek boterea lortu zutenetik, Elizaren eta Estatuaren arteko harremanetan aldaketak izan ziren, eta desamortizazioa egikaritzeko ekimenak moteldu ziren». Eta Konkordatuaren figura piztuz luzerako ondoriok izango dituen harreman bat abian jarri: «Desamortizazioaren giro horretan Elizaren ondarearen inguruan emandako urrats garrantzitsu bat Espainiako erreinuaren eta Egoitza Santuaren arteko 1851ko martxoaren 16ko Konkordatua izan zen. Garai moderno eta garaikideetan, Elizaren eta Estatuaren arteko harremanak konkordatuaren bidez arautu izan ziren askotan, hau da, bi botereen arteko hitzarmenen bidez». Nafarroan desamortizazioek ekarritako eraginak baloratzerako ere igarotzen da: «Nafarroan besterendutako ondasun gehienak 1838. eta 1851. urteen artean izan ziren, eta gehienak landa-lurrak. Erlijio-tokiei dagokienez, monasterioak eta komentuak izan ziren desamortizazioa pairatu zuten bakarrak. Nafarroan, estatu osoan bezala, desamortizazioaren legeak aplikatzea oso zaila izan zen. XIX. mendeko historia politiko korapilatsuak eta legedi-aldaketa anitzek Elizaren jabetza horiek mantentzea lagundu zuten: bere aldetik, jurisprudentziak ezer gutxi gehitu zuen». Espainiako Bigarren Errepublikak 1931ko abenduaren 9ko Konstituzioa onartu zuenean herri-subiranotasuna aldarrikatu zuen. Baina horrek zer suposatzen du eztabaidan daukagun gaiarentzat: «Erlijio-tokien ondareari dagokionez, Bigarren Errepublikako Gobernuak 1933ko maiatzaren 18an erlijio-konfesioen eta kongregazioen legea onartu zuen. Hirugarren tituluak konfesio erlijiosoen ondarearen araubidea zen, eta bertan, aldaketarik sakonena jabetzaren eta edukitzaren artean ezartzen zuena da. Hau, ez dugu “desamortizazio” bati ateak irekiko lizkiokeen prozesu batekin nahastu behar [...] eta are gutxiago Nafarroan». Gerra Zibilaren ondoren Francoren erregimenak Errepublikak Elizaren kontra emandako legedia indargabetu zuen. Eta ez zen horretan gelditu:

«Desamortizazioak besterendu zituen erlijio-eraikinak Nafarroako botere frankistek “birsakralizatu” zituzten, monasterio horiek berriro ere erlijio-ordenei emanaz». Baina berrikiago, beti frankismoaren espirituan, usukapioa erregulatzen duen Nafarroako Foru Berria (1973) daukagula gogoratzen digu. Eta bere formazio zorrotzeko ezagutzatik aholku bat luzatzen du artikulua amaitzeko orduan: «Hori dela eta, salaketa etikoaz haraindi (non erlijio-tokien edukitzearen argudio sendoa erabili beharko litzatekeen), ez nioke gomendatuko udal bati Elizaren kontra immatrikulatuta dagoen ondasun batengatik auzitan sartzea (prozesua garestia eta luzea izango litzateke), baldin eta erlijio-toki horren ibilbide historiko osoa aintzat hartu beharko duen ikerketa historiko-juridiko sendo baten bermea ez badu».

Luzio Uriartek «Euskal Herrian gizartea eta eliza» artikulua prestatu digu zenbaki hau osatzeko. Bihoazkio gure eskerrik beroenak. Artikulugileak agertzen digunez: «XXV. Gogoeta Astearen eskainitako mintzaldietako bat da hemen agertzen den artikulua. Aurten, gogoeta-aste hori Loiolan egin da, abuztuaren 31tik irailaren 4ra arte. Aste horretan Euskal Herriko leku ezberdinetako kristauak parte hartzen dute. Aurtengo Gogoeta Astearen izenburua ondorengo izan da: “Euskal Herrian Jesusi begira”». Artikulugilea, bada, Euskal Elizatik so egungo gizartean Elizak eduki lezakeen jokabideaz ari da. Sarrera-hitzetan idazten duen perpaus honek bere pentsamendua erakusten digu: «Ez dugu sinesten nahi duguna, ahal duguna baino. Gure sinesmena baldintzaturik dago beti. Baieztapen horrek ez du ukatzen pertsonaren askatasuna, baina askatasun hori beti kokatua dago. Sinesmen erlijioso bat eta sinesteko modua bizitza pertsonalaren esperientziari lotzen zaio neurri handi batean». Gaian murgilduz modernitateetik abiatzen da bere gogoeta: «Mendebaldeko gizarteetan, kristautasunak gizartearekin zituen loturak aldatu ditu modernitateak. Modernitateko etorrerak muga bat markatzen du gizartearen bilakaeran; gizartean erlijioa egoteko modua eta erlijioaren beraren esanahia aldatzen dira» Eta modernitateaz definizio bat eman nahirik, hau dio: «Gauza asko aldatzen ditu modernitateak, baina aldaketak aldaketa, modernitatea harago doa: kultura berri baten sorrera da». Vatikanoko I. Kontzilioak modernitatearekin etendura egin zuela-eta, horren kontra harian Vatikanoko II. Kontzilio dakarkigu: «Modernitatearekiko jarrera-aldaketa egin nahiz, modernitatearen ekarpenak onartzeko prest dago eta elkarrizketa leiala egin nahi du». Eliza Katolikoan geroztik bi korrante hauek borrokan bizi dira. Alde batetik, kontserbadoreak daude, zeinek modernitatea kulturari dagokionez «ondare kulturalak guztiengana zabaltu nahi izateagatik kritikatzuten duten [...] Baita pentsamendu filosofikoan berriak zaharra ordezkatzeko lukeelako [...] Eta aniztasuna onartzean bizitzaren zentzua kolokan jartzen duelako». Estatu demokratikoarekin ere kritikoa da: «Aukerarik onena edo erabakirik onena ez duelako ziurtatzen». Aldiz, modernitatearen aldeko mugimendu kritikoa dio: «Kulturari dagokionez, aniztasunaren aldeko apustua egiten du mugimendu kritikoa. Kulturaren esparruan, tolerantzia da, pertsonen eta gutxiengoen bizimoduekiko begirunea zabaltu nahi dute. Balioei dagokienez, oinarrizko gutxieneko batzuk onartuz gero, askatasuna eta konfiantza da jarrera nagusia. Kulturaren esparruan agertzen den aniztasunean ez dute arazorik ikusten, aukera baino: gizartea aberasten da ikuspuntu asko izatean». Estatuari dagokionez, demokraziaren aldeko apustua egiten da: «Demokraziarekin batera, ekonomiaren ibilbidea birplanteatu behar da; gaur egun, ekonomia etekin pribatuari begira antolatuta dago. Pribatizatu beharrean, sozializatu behar da; ongiza-

tearen estatua sakondu behar da; ondasunak eta produkzioaren etekinak ondo banatzeko, politika argi eta zuzena egin behar du Estatuak». Horrekin baieztapen bat egiten da: «Modernitateko interpretazio honetan erlijioa ere oso garrantzitsua da. Ezkerra eta erlijioa elkarren kontra zeudeneko irudia apurtzen da interpretazio honetan». Neoliberalismoa aurkezten da: «Neoliberalismoa modernitateko interpretazio bat da, beste interpretazio bat. Neurri batean, kontserbadorismotik hurbil dagoela pentsa genezake, baina ez da kontserbadorismo hutsa eta bereiztea oso garrantzitsua da». Baina neoliberalismoa modernitatearen bilakaerarekin kritikoa ere bada. Zertan dagoen arazoa?: «Minbizia esparru kulturean kokatuta dago». Hori zertan gauzatzen den?: «Ez dela erlijioaren natura, erroa, edo erlijioa izatearen arrazoi sakona, baizik eta erlijioak betetzen duen zeregina: nihilismoak eta postmodernismoak dakarten hondamenditik ateratzeko zeregina». Postmodernitatea aurkeztera igarotzen da ondotik. Zer da gogoeta ikuspegi honetatik? «Ez dago sinesterik, hots, ez dago sinesmen finkorik. Antzinako sinesmen sendoek bazeukaten xarma eta erakargarritasuna, baina gaur egun ez dira posible. Ez da sinesten demokrazian, ezta iraultzan ere; ez da sinesten maitasunean, ezta justizian ere; ez da sinesten garapenean, ezta etorkizun hobean ere. Zerbait galdu da, baina oraingo ongizatea bilatzen da itsu-itsu. Giro malenkoniatsua da, baina, nonbait, malenkonia hori gazi-goza da, eztitsua eta mingotsa batera: Dagoenean bon-bon; eta, ez dagoenean, hor konpon» Gogoetaren puntu honetan beste galdera bat eraikitzen da: «Nolakoa izan da modernitatea Euskal Herrian? Euskal Herriko Eliza nola kokatu da modernitatearen aurrean? Zein da gaur egungo joera?». Erantzuna honela sintetiza genezake: «Euskal Herria, edonola ulertu arren, esan dezakegu euskararen munduarekin lotuta dagoela, neurri batean behinik behin. Gure artean badago kultura bat euskaraz azaldu, euskaraz bizi, euskaraz komunikatu nahi duena. Puntu hori nahiko konplexua dela onartzen dut eta gogoeta honetako helburuaz gain egonik, ezin dut sakondu. Baina euskaraz azaltzen den kulturaren eta modernitatearen artean badago dinamika berezi bat, gure gogoetan kontuan hartu behar duguna: abangoardiak izan ezik, modernitateari ez dio harrera onik egin euskal kulturak». Euskal Herrian 1960az gero Elizarekin gertaturikoa honela aurkezten da: «Modernitatearekin lotzen den lehenengo belaunaldia, modernitateko ideologiak bereganatuz, berehalaxe sekularizatzen da eta erlijioak galtzen du bere zentzua. Aldi berean, modernitatea onartzeak ez dakar espero zen liberazioa. Ondorioa sinplea da: eliza husten da eta modernitateko mezuan berehalaxe galtzen da fedea». Gaurko egoera deskribatzean, modernitate-proiektuaren porrota, erlijioaren berragerpen publikoa, identitate-arazoari loturiko etorkizuna, krisi ekonomikoa, globalizazioaren testuingurua, eta erlijioen aniztasuna aipatzen dira. Euskal literatura garaikidean bilakatzen ari den pentsamendu-korrante ardatza aztertzeraz ere saiatzeko da: 1960az gero literatura sekularizatzen da, erlijioaren aurkako jarrera nagusitzen doa, baina espiritualitatearen egarri bat ageri da idazle gehienetan, instituzioaren krisiarekin batera. Eta amaitzeko etorkizunari begira fededunentzako erronkak, hots, fedezko jarrerak dira gai. Ezagutza eta gogoeta anitz baditu lanak, baina batez ere euskal eliztar aburukorrante baten defentsan eraikitako artikulua dela esango genuke. Ongi etorria merezi du inolaz ere.

Edorta Kortadi Olanoren «Euskal Herriko ondare zibila eta erlijiosoa. Gai opa-roa eta eztabaidagarria» artikulua, Arte Ederretan espezializatu den norbaitek egin

digun ekarpen bezala dakargu dossier hau osatzeko orduan. Bidenabar, har bitza gure partetik, mila esker bero, eskaini digun kolaborazioagatik. Izan ere, eztabaidan jarri den Nafarroako Eliza Katolikoaren ondare-atribuzioak zenbaterainoko ahalak ditu bere baitan zaintza on bat ziurtatzeko? Ondarea, «propietate pribatu» bihurtzen ari direnek pentsatu al dute ondasun horiek zaintzeko beharrezko dirulaguntza «publikoa» nondik aterako duten? Estatua eta Eliza borrokan egon diren edo dauden herrietan benetan tamalgarria izaten baita konstatatzea garrantzi handieneko ondasunak desegiten ari direla arduradunen arduragabetasunagatik. Gatazkaren ertzetan daudenen arerio-izendatze kontrajarriak ez baitzaizkigu inolako kontsolamendu-motibo ondarearen desegitearen aitzinean.

Artikulugilearen lanean egiaztatze batekin sarrera egiten da: «Euskal Herriko historia- eta arte-ondarea ez da ez oso zabala, baina bai aski aberatsa eta adierazgarria». Xede onen aitormenik ere ez da falta: «Ondarea guztiona da, eta denon lana da mundua zaintzea». Baina ondarea denona kontsideratua izan dadin ez al da komeni erakunde publikoen izenean inskribaturik egotea? Ihardespena ez da lineala: «Horri guztiari jabetzaren konplexutasuna erantsi behar diogu; izan ere, jabeak era eta mota guztietakoak izan daitezke: publikoak, pribatuak, erakundeak, enpresak, udalak, probintziak, eskualdeak, nazioak, nazioarteak, gizateria; eta horietako bakoitzak ondarearekiko dituen betebeharrak, lege eta eginkizunak. Kontua benetan konplexua eta poliedrikoa da, gurutzatua eta —askotan, gainera— kontrajarria eta nahasia ere bai». Nahiz horrelako esaldi batek eztabaida luzatzea besterik ez duela bilatzen susmoa piztu, berehala erantzun zehatz bat dakar: «Ondare zibilarren eta erlijiosoaren, zein pribatuaren eta publikoaren arteko liskarraldiak eta desadostasun historikoak ez dira neurri zorrotzak eta momentukoak erabiliz konpondu behar». Eta azkenean eztabaidaren barreneko ertz baten aldeko jarrera hartzen da: «Ondarea guztiontzat da, baina helburu eta erabilera zehatz eta jakinekin sortu zen. Eta erabiltzaile horiek, eta ez beste batzuek, zehaztu eta mugatuko dute ondarearen erabilera eta jabetza». Ondare-erabiltzaileek egiten dituzten kritika batzuk aipatzera igaroko da jarraian: «Eraikinak ez dira egunak dituen hogeita lau orduetan —garai batean bezala— zabalik egoten, lekuaren eta kultura-ondasunen segurtasunagatik beragatik. Baina, ez dago zalantzarik ezarritako orduak, gida didaktikoak eta langile espezializatuak eskainitako ondasunen mundua eta guneak hobetzen eta aberasten ari direla. Ondare-ondasunak ikustera sartzeko ordaindu behar izateak ere aldeko eta kontrako iritzia ditu». Ondarearen kudeatzaileen partetik ere guzior hori mugatu egingo litzateke: «Eskaintza ez da erabiltzaile masibo eta orokor batengana zuzentzen, populazio minoritario eta espezializatu batengana baizik». Ibilbide primitibo, antzinatiko eta Erdi Arokoen kasuan ondarea zaindu behararren arrazoia ere aurreratzen da: «Erabaki zuzena izan da Euskal Herriko labar-artearen aztarnategiak publiko orokor ez-espezializatuari ixtea, zaindu ahal izateko». Eta noblezia, klero eta burgesiaren protagonismoa agerian duten Errenazimentutik gaur egun arteko hainbat euskal aberastasun izendatzen dira banan-banan. Beste bidaiak batean neoklasizismotik arte garaikidera garamatza. Garai honetan bereiztekoak dira: «Plazak, udaletxeak, diputazio-jauregiak eta batzar nagusiak (Bizkaikoak, esaterako) eraikitzeke proposamen berriek bide eman zieten arkitekto ospetsuek egindako eraikin eta monumentu multzo ikusgarriei». Industria eta teknologia berrien ondarea letorke ondoren: «Nekazaritza-zibilizaziotik zibilizazio industrialera

egindako jauzi azkarrak, eta, zibilizazio industrialetik teknologiara eta zibernetikara egindako jauzi are azkarragoak, euren ondasunak eraitsi eta txikitzearekin batera, ondare hori zaintzeko eta berreskuratzeko kontzientzia ere sortu du». Ingurunearen baliotasun-kontzientzia ere gora egiten ari dela ikusten du: «Beste horrenbeste esan daiteke natura-gune eta parkeak berreskuratzeaz eta baloratzeaz ere. Denon kontzientzia ekologikoari eta sortzen ari garen kutsadurari esker, gero eta begirune handiagoa diogu naturari eta gero eta gehiago kezkatzen gaitu behar bezala zaintzeak». Ondarea gero eta gehiagoko hazteak zaintza-arazoak ekarri ditu: «Gaur egun dagoeneko ezinezkoa da ondarea mugagabe haztea eta erabiltzea, eta hura zaintzeko dauzkagun baliabideak ere mugatuak dira. Irudimenaz eta talentuz bete behar dugu geure burua, baina baita herritar kontzientziaz ere. Neurri azkarrak, zorrotzak, sozialak eta guztiontzako onuragarriak hartu behar dira». Gauzak horrela, heziketa-politika bat beharrezkotzat jotzen da..«Hori egin ezean, ondarea bera jan eta hondatu egingo baitugu. Arlo horretan ere, beste askotan bezalaxe, ardua nagusia familiaguneak dauka, eta bigarren lekuan letorke eremu sozio-komunitarioa». Egindako gogoeta ixteko egoki deritzogu ondorioetan ageri den perpaus hau gogoarazteari: «Ez dago herririk, txiro edo garatua izan, txiki edo handia izan, bere ondarerik ez duenik. Denak ala denak berdin tratatu, zaindu eta errespetatu behar dira kulturaren kontzertu unibertsalean». Zuzenki gure zenbaki berezian eztabaidan daukagun gaiak emandako aburuez gain, Euskal Herrian daukagun arte eta ondareari buruzko laburpen bat eskaini digu.

